

GIZARTE/ARLOAREN BIDEZ LOGIKA LANTZEN

Modesto Arrieta Illarramendi O.H.O.ko Irakaslegoaren U.E. Donostia

Matematika lantzerakoan ikasleen interesa lortzeko, kontzeptuak argi eta garbi azalduz gain, beste zerbait gehiago behar dela erakusten du esperientziak. Maixu eta andereño gehienek badakite, ikasleen interesaren lorpena eta lan praktikoa, eskutik doazela eta eredu praktikoa aurkitzen salatzen dira.

Lan hau, sormen lan bat denez eta aberasgarria izanik nahiko zaila da eta gainera, maila, adin, herri, giro,.... batean egokia den aktibitatea beste ingurugiro batean behar bada ez da hain egokia izango.

Aurten, Baionan, U.E.U.ko Matematika sailerako zenbait aktibitate eredu prestatu genuen, bertako andereñoek praktikan jar ditzaten. Ikastaro honetan aurkezturiko aktibitateak, praktikoak izanik, andereñoentzat (maixu bakarra) egokituak zeuden baina beregokitu ondoren O.H.O.ko ikasleentzat baliagarriak direla pentsatzen dugu.

Bestalde, gaur aurkezten dugun aktibitateak, beste ikuspuntu batetik abiatzeko eta lan eraginkor bat egiteko aukera emanik, Gizarte-arloa landuz gain Logikako zenbait alderdi lantzen ditu, hain zuzen, Sailkapenak, Ordenaketak, EZ, EDO, ETA lotura logikoak,

Era honetan ere, beste helburu bat ere betetzen da, alegia, Matematikak beste zenbait arloekin lotura duela adieraztea. Aktibitate eredu hau aurrera eramateko, ikasleak laukotetan banatzea komenigarritzat jotzen da, lan autonomo bat egin dezaten eta behar

duten materiala hauxe da:

- Euskal Herriko mapa
- "Egin" urtekaria
- Ondorengo 6 lan fitxen fotokopiak.

Azkenik, lantxo hau Iparraldeko maixu-anderenoei eskeintzen diet, Baionan gogoz lanean aritu zirelako. Ondorengo zerrendan, Euskal Herriko herri mordo bat azaltzen da, bakoltzari dagokion biztanle kopuruarekin:

("EGIN" urtekaria: Euskadi 1983)

- Atharratze (787)
- Mutriku (5.244)
- Zeanuri (1.298)
- Amurrio (8.984)
- Tuteru (24.629)
- Kanbo (4.162)
- Baigorri (1.691)
- Bergara (15.759)
- Leitza (3.240)
- Bermeo (17.778)
- Agurain (3.566)
- Lodosa (4.455)
- Urepele (459)
- Sara (1.930)
- Tafalla (9.863)
- Lekeitio (6.874)
- Orlio (4.358)
- Aretxabaleta (5.928)
- Berriz (4.127)
- Miarritze (26.598)
- Barkoxe (916)
- Lizarra (13.086)

- Arrasate (26.045)
- Ondarru (12.150)
- Bidaxun (1.015)
- Zarautz (15.071)
- Durango (26.102)
- Sohuta (1.173)
- Kanpezu (1.271)
- Hendaia (10.573)
- Gorliz (3.205)
- Hondarribia (11.276)
- Etxarri-Aranatz (2.268)
- Arrigorriaga (8.912)

- Biasteri (1.667)
- Altsasu (7.250)
- Oion (2.250)
- Laudio (20.625)
- Gernika (17.836)
- Getaria (2.407)

Azpirarratu aurreko zerrendan, hondartza duten herri guztiak.

- Saikatu zerrendako herriak.

| Hondartza dute | | | | | | |
|----------------|----------------|---------|-----------|---------|-----------|---------|
| ARABA | BEHE-NA-FARROA | BIZKAIA | GIPUZ-KOA | LAPURDI | NAFA-RROA | ZUBEROA |
| | | | | | | |

| Hondartzarik ez dute | | | | | | |
|----------------------|----------------|---------|-----------|---------|-----------|---------|
| ARABA | BEHE-NA-FARROA | BIZKAIA | GIPUZ-KOA | LAPURDI | NAFA-RROA | ZUBEROA |
| | | | | | | |

- Ze erizpide erabilli da Herrialdeak orde-
natzeko?
- Zein Herrialdetan ez dago hondartza duen
herririk?
- Hondartza duen beste herriren bat ezagu-
tzen baduzu, kokatu dagokion laukian


- Kokatu bakoitzari dagokion laukian, Euskal
Herriko 7 hiriburuak.
- Zure herria ez bada zerrenda horretan azal-
tzen, non kokatuko zenuke?

| Sailkatu zerrendako herriak | 10.000 biztanle baino gehiago | 10.000 biztanle baino gutxiago |
|--------------------------------|----------------------------------|-----------------------------------|
| BIZKAIA | | |
| GIPUZKOA | | |
| NAFARROA | | |
| ARABA | | |
| LAPURDI | | |
| BEHE-NAFARROA | | |
| ZUBEROA | | |

- Ze erizpide erabilli da Herrialdeak orde-
natzeko?
- Ze Herrialdetan ez dago 10.000 biztanle
baino gehiago dituen herririk?

- Kokatu, bakoitzari dagokion laukian, Euskal
Herriko 7 hiriburuak.
- Zure herria ez bada zerrenda horretan azal-
tzen, non kokatuko zenuke?

- Nola sartuko zenituzke sailkapen bakar batean aurreko 2 sailkapenak? Egizu hementxe:



• **Esan zuzenak ala okerrak diren:**

• Baigorri, 10.000 biztanle baino gutxiago dituen eta hondartzarik gabeko Behe-Nafarroako herri bat da

• Laudio, 10.000 biztanle baino gehiago dituen eta hondartza duen Arabako edo Bizkaiko herri bat da

• **Hutsuneak bete, ahal bada behintzat:**

....., 10.000 biztanle baino gutxiago eta hondartzarik gabeko Lapurdiko herri bat da.

....., 10.000 biztanle baino gehiago eta hondartza duen Bizkaiko edo Gipuzkoako herri bat da.

....., 10.000 biztanle baino gehiago eta hondartzarik gabeko Zuberoko herri bat da.

....., 10.000 biztanle baino gutxiago eta hondartza duen Nafarroako edo Arabako herri bat da.

• **Idatzi era berean:**

• Zure herria:

• Zure Herrialdeko hiriburua:

• Ordena itzazu hondartza duten herriak (lehen azpimarratutakoak) Mendebaldetik Ekialdera.

• Ordena itzazu aurreko herriak biztanle-kopuruaren arabera (txikienetik handienara):

• Ordena itzazu herri berberak alfabetoaren arabera:

• Adleraz ezazu, herri hauexekin ordenaketa desberdin bat lortzeko, beste erizpideren bat: